

Agenda

Asteartea, 2010ko apirilak 20 - 15:54

[Hasiera](#)
[BerriaTB](#)
[Parte Hartu](#)
[Blogak](#)
[Bereziak](#)
[Kanalak](#)
[Zuzenekoak](#)

[Paperekoa](#)
[PDFn](#)
[Iragarki laburrak](#)
[Hitza](#)

[Harian](#) | [Iritzia](#) | [Kirola](#) | [Agenda](#) | [Plaza](#)

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Agenda](#)

2008-03-21

Muztioa egiten ikasteko aukera Sagardoetxean

ERREDAKZIOA

Esperientzia berriak gustuko dituenak horietako bat ikasteko aukera dauka Astigarragako (Gipuzkoa) Sagardoetxean: muztioa egiteko tailerra. Sagarretik muztioa lortzeko prozesua metodo tradizionalaren bidez egingo da : kizkiarekin sagarra jaso, patsa egin, sagarra pisoekin jo eskulanean, eta azkenik eskuzko tolarean zanpatu muztioa lortzeko. Horrez gain, museoa eta sagardotegia ezagutzeko aukera ematen du Sagardoetxearen bisitaldiak. Museoa hiru gunetan banatuta dago: interpretazio zentroan sagardoaren historiaren berri ematen da; bigarren goan, museoko sagastia ikus daiteke eta bertan hainbat sagar mota eta horien ezaugarriak, txertaketa teknikak ezagutu ahal izango dira, besteak beste. Eta azkenekoan, berriz, sagardoa probatzeko aukera izango da. Amaitzeko sagardotegian murgilduko dira bisitariak jakiak eta sagardoa dastatuz.

Tailerra. 'Muztioa egiten'. **Lekua:** Astigarraga (Gipuzkoa). **Noiz:** Gaur eta bihar 12:00etan eta 17:30ean. Igandean, 12:00etan soilik.

[Hasiera](#) | [Euskal Herria](#) | [Ekonomia](#) | [Mundua](#) | [Kirola](#) | [Kultura](#) | [BerriaTB](#) | [Parte Hartu](#) | [Blogak](#) | [Bereziak](#) | [Paperekoa](#)

© **Berria.info - Euskal Editorea S.L.**
 Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140
 Telefonoa: 943 304 030 / Faxa: 943 590 172
 berria@berria.info - www.berria.info
 Lege Informazioa



Minority dailies association



bai



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SALA
Ministerio Publikoakko Garapenak
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Ministerio de Política Lingüística

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa